


ZER BERRI BATASUNAREN PROPOSAMENAREN AURKEZPENA 16AN
SUTONDOAREN EPELEAN ELENA URRESTARAZUREKIN ELKARRIZKETA

piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 101. alea 2004ko abenduaren 10a



Alberto Sudupe hil da
**Azken agurra
alkateari**



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.

Sagar Erreka, 19 45 PK

Telefona: 34 943 75 21 00

Faxa: 34 943 75 17 12

20590 SORALUZE



Soraluzeko udala

*Samindurik dugu bihotza,
motel bizitzaren garra.
gaur faltan somatzen dugu
zuk emandako indarra*





Alberto Suduperen oroimenez

Rafa Varela, Nerea Isasti, Oscar Gabilondo, Jabier Garmendia, Iker Aldazabal, Mirari Olertza eta Maite Oregi

Zer esan daiteke Alberto Sudupez orain arte esan ez denik? 1999ko ekainetik 2004ko azarorarte Soraluze-ko alkatea izan da, legislatura oso bat eta bigarrenaren ia erdia. Urte hauetan zehar bi lan talde zuzendu ditu eta Udalean bere ondoan lanean jardun izan dugun zinegotziok Alberto ezagutzeko aukera izan dugu.

Gizon langilea eta jatorra zen eta bere bizitzako azken egunetan hasierako ilusio berdina mantentzen zuen. Soraluzekiko hirigintza ikuspuntu berri-zailea zuen eta alkate izendatua izan bezain pronto ikuspuntu hau errealitate bihurtzen hasi zen. Ikusi besterik ez dago urte askotan geldi egon ondoren, Soraluzek demaseko aldaketa egin duela. Baina ez hirigintza mailan soilik. Herriko arazo sozial askori irtenbidea eman zien.

Berarentzat Ongizate arloa oso garrantzitsua zen. Horregatik nagusien eta behartsuen bizitza kalitatean pentsatuz, oraingo Ongizate batzordeko buruarekin batera, udaletxe aldameneko lokala lortu zen. Hau adibide bat besterik ez da. Herriaren beharrei aurre egiteko, guztiok biltzen

gintuen eta bakoitzak bere ideiak bota ondoren, forma ematen zitzairen eta martxan jarri ere.

Urte hauetan erabaki asko hartu behar izan ditu, batzuk zuzenak, beste batzuk ez agian. Baina argi dago lan handia egin duela Soraluze eta soraluzetarren alde. Albertok bere burua kudeatzailatzat zuen, ez politikotzat, eta beti esaten zuen alkate izateko nahikoa zela zentzuna izatea eta herria asko maitatzea. Eta berak benetan maite zuen.

Gure arteko edonork arazo bat zuenean, beregana jotzen zuen laguntza bila. Guretako arazo handi bat zena, berak erlatibizatu egiten zuen eta bere bulegotik askoz lasaiago irtezen ginen, arazoa ia konponduta genuela.

Hitz batetan esanda, pertsona berezia eta karismatikoa zen. Nahiz eta batzuk bere kudeaketa ulertu ez, denborak bakoitza bere tokian jartzen du eta Albertok soraluzetarren bihotzean txoko bat izango du betirako, bai alkate bezela, bai pertsona bezela.

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. 100. alia atzera geratu da. Stop. baina 101. arekin aurrera jarraitzen dogu. Stop. eta Alberto Suduperen inguruan egin dogu erreportaia. Stop. bistakua da Soraluzerengan eragin haundia izan dabela. Stop. eta horixe islatzen saiatu gara zinez, omenaldi modura. Stop. eta bere onduan Soraluze. Stop. gaztien eta drogaren inguruan galdetu dogu. Stop. eta ze erantzun ezberdinak. Stop. kasu honetan ez da seinale edarra!. Stop. baten batzuk gustora egongo dira baina!. Stop. Batasunak herrixan aurkeztuko dau bere bake proposamena. Stop. eta bertatik bertara erabaki ahal izango da balixorik daukan ala ez. Stop. Euskararen eguna be pasatu da. Stop. eta datorren urtia Frontoiko ikastetxian hasiko daben umiak. eta irakasliak izan dira mezua kaleratu dabenak. Stop. "Bizi dadin, euskeraz egin!". Stop. ez da txarra!. Stop. Chillidalekutik datorren ikuskizuna moduan!. Stop. gozatu deigun Soraluzeko antzokirik eder eta zahar- rrenian!. Stop. eta Fernani eta Elenari zorionak. Stop. Oierri eta Txemari bebai. Stop. eta doluminak Euskal Herrixari. Stop. sakabanaketak beste familixa bat apurtu dabela- ko. Stop. ondo ezagutzen dogu hori plazentziarrok. Stop. bada ordua presuak Euskal Herriratzeko. Stop. bestela alperrik da bakiaz berba egitia. Stop. itsuak be ikusten dau hori!. Stop. Zuk zer diñozu Soraluze?



Argitaratzailea:

PiiPilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefona 943 75 13 04
comunidades.kzgunea.net/PiiPileanKulturaElkatea/EU
piliPilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Euzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: PiiPilean **ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pii Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkari-ko esanien eta inntzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZETIKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Azaroaren 29an hil zen Alberto Sudupe gaixotasun luze baten ondoren. Oraintxuarte, bost urte pasatxotan, Soraluzeko alkate izan da Alberto. 58 Urterekin hil da. Herri osoak sentitu du bere heriotza eta horren adierazgarri heriotzaren hurrengo eguneko elizkizunera euren dolumina erakustera hurbildu ziren ehundaka herritarrak.

Zorion agurrak

Maialen Elizburu
Abenduaren 17xan
24 urte
Zorionak!
Badakizu asko
maite zaitugula!
Pilekuen partetik.



Urko Aizpuru
Abenduaren 3an
Urtebete.
ZORIONAK!
Jarraitu horrelako
poztasun eta sasoi-
rekin.
Etxekuen partetik.

**"25 URTE ETA GERO...
EUSKAL HERRIAN
EUSKARAZ"** (Ekitaldia)

NON: Iruñian
(Anaitasuna Kiroledegian)

EGUNA:
abenduaren 18an
(Zapataua)

ORDUA:
16:15ean Gilatik

IZENA EMATEKO:
Arranuan eta Gaztetxian

hildakoak

Emilio Fernandez
Martin Lizarralde
Alberto Sudupe



Dabid Elizburu
Abenduaren 3an
34 urte
Zorionak!!
Donostian bizi zara-
netik oindio gehixao
maite zaitugu!
Etxekuen partetik.

Gutunak**EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA ORAIN !!!**

Sakabanaketa politikak Presoen eta Senideen oinarritzko eskubideak urratzen dituelako.

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA ORAIN !!!

Sakabanaketa politikak Presoentzat eta Senideentzat heriotza zigorra ahalbidetzen duelako (34 hildako).

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA ORAIN !!!

Euskal Preso Politikoen jatorri eta izaera Politikoa ezagutuko delako.

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA ORAIN !!!

Euskal Preso Politikoen Euskal Prozesu politikoan parte hartzeko bermea delako.

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA ORAIN !!!

Gatazka politikoaren konponbideari begira, Amnistiaren bidean, urrats inportantea delako.

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA ORAIN !!!

Eta Euskal gizarteak hamaika aldiz eta ozen hala aldarrikatu duelako.

Soraluzeko Etxerat**Loteria eta Euskal Herria**

Igaz Euskal Herrian ia 29.000 millo peze-
ta jokatu ziran, El Gordo loterian.
Sari nagusietan 526 millo pezeta jaso ziran
Euskal Herrian.
Españiar estatuak 125.000 millo pezeta
garbi irabazi ebazan estatuan, El Gordo
loteriarekin.

Jon Errasti

**IKASTAROAK****PHOTOSHOP IKASTAROA**

Gipuzkoako Foru Aldundia antolatuta. Ikastaroa 2005eko otsailaren 19an, otsailaren 26an eta martxoaren 5ean izango da. Tokia: Gaztegune, Anoeta pasealeku, 28 - Donostia. Orduetgia: 10:30etatik 13:30etara. Edukia: Photoshop programaren oinarritzko erabilera, irudien tratamendua eta manipulazioa, geruzak, efektuak, etab. Epea: 2005-02-16 Informazioa 900 110111 zenbakian. Matikula 12 euro.

EXCEL IKASTAROA

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta. Excel inoiz erabilia izatea edo erreminta berriak ikasi nahi izatea da baldintza. Ikastaroa 2004ko abenduaren 18an izango da. Tokia: Gaztegune, Anoeta pasealeku, 28. Donostia. Orduetgia: 10:30etatik 13:30etara. Edukia: Open Officeko kalkulu-orriaren modulua. Microsoft-eko Excelen baliokidea. Oinarritzko erabilera, desberdintasunak, funtzionaltasun bereziak. Epea: 2004-12-15. Informazioa: 900 110111an. Matrikula 3 euro.

BESTERIK

Etxebizitza salgai Errabal kaleko etxebizitza berrietan. Garajea eta ganbara barne sarbidearekin. 687900114

OROITZA

Azaroaren 29an hil zen Soraluzen 58 urte zituela
ALBERTO SUDUPE OREGI Goian bego

*"Zure onduan izan ginan zoriontsu
eta geure bihotzetan eruango zaitugu beti."*

Heriotzaren ostean dolumina adierazi eta hiletara joan ziren guztiak eskertu nahi ditu sendiak.

**ITUR iturgintza**

**Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak**

Santa Ana, 20 Behea
Tifonoa: 943 75 12 41
Sakeleko tifonoa: 639 17 96 96



FER. S.A.
Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tifonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Zer irizten dotsazu?

Orain, gazteak gero eta adin txikiagoarekin hasten dira drogak kontsumitzen. Azken datuen arabera, ikasleen %10 kalamua erreta joaten da eskolara, 14-24 urte bitarteko gazteen bi here-nek asteburuero edaten dute alkohola eta 4-29 urte bitartekoen %3,2k -16.000 gazte inguruk-estasia gauza normala izango balitz bezala hartzen du, eta beste %8k noizbait probatu du.

Kezkatzekua pentsatzen jatzu gaztiak drogekin dauken harremana?



Beatriz Maiztegi
43 urte Langilia

Informaziñua emon bihar jakue eta gaztetatik kontrolatu bihar dira, ze gero eta gaztiaguak hasten dira. Informaziño falta edo ohitura izan leike eta herrixan be ez dauke ixa ezer. Etxian eurekin berba gehixao egitia izan leike ona.



Lorenzo Fraile Garcia
66 urte Jubilatua

Drogena ez jata ezer gustatzen, eta ez dakit zergaitik geratzen dan hain goiz. Hau konpontzeko oso zaila da ze gaztiak ez dabe kasorik egiten. Ez jata gustatzen ze sartuta daganak familiari egiten dotsa kalte eta bere buruari be bai.



Jose Ignacio Santa Ines
29 urte Irakaslia

Gaur egun gaztiak gero eta lehenago hasten dira eta hau bai da pixkat larritzekua. Gaur egunian jende nagusi-xakin lehenago tope egiten dabe. Honi aurre egiteko gaztieri informaziño gehixao emon, aisialdi eskeintza gehixao eskeini eta gurasuekin berba gehixao egin bihar dabe.



Maria Pilar Peñin
64 urte Etxekoandra

Beti pasatu dan gauzia da baina oin gaztiago hasten da eta kezagarria da. Telebistak kulpa pixkat badaukala uste dot. Gero hemen herrixan ez dago ezebe umiendako ez zine ez ezebe, eta zeoze egin biharko zala uste dot.



Ander Bolunburu
17 urte Ikaslea

Kezkagarria bada, baina kontuz kontsumidu ezkeru ondo dago. Ez dakit zergaitik gertatzen dan gaztiak lehenago kontsumitzia. Hau, gizartia aldatzen doialako uste dot gertatzen dala. Ez dot uste asko egin ahal danik kontsumuan kontra.



Hanane Bergaout
23 urte Ikaslea

Lagunen arabera izaten da, batak bestia murgiltzen dau. Gainera gero eta gaztiaguak hasten dira ez dakixelako zer egin eta gauza berrixak probatziarren. Hau dana mozteko, drogak ekartzen dituenen kontra egin bihar da, drogekin amaitzeko.

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Jabier Garmendia izango da Suduperen hutsunea beteko duena

Joan zen azaroaren 26an egin zen Udalbatzar berezian jakinarazi zuen Gobernu Taldeak, zerrendan hurrengo zetorren Jose Maria Igartuak karguari uko egin ostean, Jabier Garmendia izango dela legegintzaldia amaitu bitartean Alberto Suduperen hutsunea beteko duena. Jabier aurreko legegintzaldian ere izan zen zinegotzi, nekazaritza sailaren arduradun hain zuzen.

Honekin batera Udalbatzarrak Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren arira, Emakundek aurkeztutako Adierazpen Istituzionala aho batez onartu zuen. Hala ere, SAH eta PPko ordezkariak kexu azaldu ziren, Udalak 2002an plan berezi bat garatzeko hartutako konpromisoa bete ez duelako eta ez delako Emakume Batzorderik sortu.



Batasunaren proposamenaren aurkezpena abenduaren 16an

Soraluzeko Batasunak jakinarazi duenez, abenduaren 16an, eguena, Donostiako Anoeta Belodromoan aurkeztutako bakerako proposamen berriaren herri mailako aurkezpena egingo du Batasunak Kiroldegiko Erakusketa Aretoan. Aurkezpena arratsaldeko 19:30etan hasiko da eta irekia izango proposamenaren berri jakin nahi duten guztiendako.

Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrek Frontoiko eraikinean jarraituko dute lanak guztiz amaitu artean

Datorren urte hasierarako goiko ikastetxera aldatzea aurrikusita bazeen ere, Ikastetxeko eraberritze lanak guztiz amaitu gabe daudela eta, Kontseilu Eskolarrak (irakasle eta gurasoak), Haur Hezkuntzako eta Lehen Zikloko haurrek eraberritzen lan guztiak amaitu arte Frontoiko ikastetxean jarraituko dutela erabaki du.

Ikastetxeko zuzendaritzak adierazi digunez, irailean ikasturtea goiko ikastetxean hasi zutenetik, obrak direla eta, hainbat arazo izan dituzte; "irailean 1erako amaituta behar zuten goiko eta barruko jolastokiko lanak oraindik amaitu gabe, berogailuarekin arazoak izan dira, komunak ez daude gaztetxoendako behar bezela egokitu-tuta, ... eta gainera oraindik ez dakigu ze konponbide eman behar zaion ikastetxerako sarbideari Estazioko errepi-dea zabaltzen deanean". Hori dela eta, Udalak arazo horiei irtenbidea aurkitu artean Frontoiko eraikinean jarraitzea erabaki dute.

Euskararen aldeko eguna



Joan zen abenduaren 3an eta Euskararen Nazioarteko eguna zela eta, Plaentxi Herri Ikastetxeko ikasleek hainbat ekimen burutu zituzten euskararen aldeko aldarrikapena gizarteratzeko asmoz. "Bizi dadin euskeraz egin"

lelopean pankarta koloretsu bat ezarri zuten Udaletxeko balkoian, hainbat ikaslek eutsita hizki erraldoiz lelo berdina irudikatu zuten eta denda eta tabernetan euskararen aldeko mezuak itsatsi zituzten.

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefona 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefona 943 75 13 99
SORALUZE

Zeletako zubia zabaldu da azaroan



Dagoeneko zabalik dago Zeletako zubia oinezko eta ibilgailuendako. Datozen asteotan behar diren segurtasun frogak egin eta gero, asfaltatu eta Olatik

Estaziorako bidearekin batera zabalduko da behinbetiko. Udalak, azaroan kaleratu duen aldizkarian, sahesbide berriari izena jartzeko lehiaketa jarri du.

Ezabaketa eguneko aldarrikapena



Azaroaren 27an Euskal Herrian Euskarazek antolatuta Euskal Herri osoan bezela Ezabaketa Eguna egin zen Soraluzen. Trikitiaz lagunduta kalerik kale gaztelerazko errotuluak "Euskal

Herrian Euskaraz" goiburuarekin estali zituzten, erakundeak, merkataria eta herritarrak errotuluetan euskara erabiltzearen beharraz eta garrantziaz ohartarazteko.

Agenda 21 aren bilera

Datorren martitzenean, abenduaren 14an egingo da Agenda 21 eko foroaren bigarren bilera. Udaltxeko aretoan izango da iluntzeko 19:30etan hasita. Bertan; aurreko bilerako emaitzak aurkeztu eta lan taldeak eratuko dira. Soraluzeko ingurugiro arazoan gainean berba egingo da eta nahi duen guztiak du bertan parte hartzeko aukera.

Lapurreta Txurixu Goxotegian

Udaltzaingoan jakinarazi digunez, joan zen martitzen gauen lapurretan egin zuten Santa Ana kaleko Txurixu Goxotegian. Ezezagunak atzeko lehiotik sartu ziren eta dirukaxa eraman zuten.

Ur kontsorzioaren azalpena eta kexak


Azaroan uraren ordainagiria jaso ostean hainbat herritarrek aurkeztutako kexuei erantzunez Ur Kontsorztioak idatzi bat kaleratu du, lehen ez bezela hemendik aurrera ordainketak hiru hiletik behin egingo direla eta azkena bost hilabetekoa zela, jakinaraziz. Horrekin batera informazio gehiago nahi izanez gero 902-30222 zenbakira deituta egin daitekeela adierazi dute. Bestalde, hainbat herritarrek euren ezinegona adierazi dute edozein gestio egiteko Bergarako bulegora jo beharragatik.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



kutxa

gizarte ekintza

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarran 22 behea, telf: 943751789

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

Azken agurra Alberto Suduperi

Azaroaren 29an hil zen Alberto Sudupe gaixotasun luze baten ondoren. Oraintxuarate, bost urte pasatxotan, Sorluzeko alkate izan da Alberto. 58 Urterekin hil da. Herri osoak sentitu du bere heriotza eta horren adierazgarri heriotzaren hurrengo eguneko elizkizunera euren dolumina erakustera hurbildu ziren ehundaka herritarrak.

Ehundaka izan ziren joan zen azaroaren 30ean Sorluzeko Santa Maria la Real elizan batu ziren sorluzetar eta kanpotarrak. Kidetasun politikoa bigarren maila batean utzita elizkizunean eta elizkizunetik kanpo (sendiari zuzenean, Udalean) hainbat eta hainbat herritar eta erakundek adierazi dute euren dolumina Alberto Suduperen heriotzarengatik.

Horietako asko senideak eta beste asko bere bizitzako ibilbidean ezagututa-koak.

Ibilbide profesionala

Alberto Sudupe 1945eko abenduaren 9an jaio zen. Elgoibarko Unceta enpresan hasi zuen bere ibilbide profesionala eta beranduago Gipuzkoako Kutxan igaro zen (Elgeta, Elgoibar eta Sorluzeko bulegoetan). 1999ko hauteskundeetan aurkeztu zen EAJrekin Sorluzeko alkatetzara eta alkatetzaz gain, bost zinegotzi lortu zituen. Lizarrako hitzarmen garaia zen eta legealdiaren hasieran EA, EH eta PSEerekin banatu zituen gobernu zereginak, handik lasterrera Lizarrako hitzarmena hautsi eta EArekin bakarrik gobernatzen jarraitu zuen arte.

Alkatetzako urteak

Alkatea izan den urteetan (1999ko ekainetik 2004ko azarora) hirigintza alorra sustatu du bereziki eta herria goitik behera itxuralldatu da; Karakaten lurrrak erosi, aisialdi guneak egin (San Andres, Ezozia, Atxuri), Ezoziko ermita eraberritu, eraikin industrial zaharrak



Alberto Sudupe aurreko legealdiko Udalbatzar batean.

eraitsi (Sazia, Amutxastegi, Alberdi), Izartu I (Olatik Estaziorako sahiesbidea, Zeletako zubi berria...), Saciako sahiesbidea egin, Kiroldegiaren zatikako eta ikastetxearen eraberritzea sustatu zituen. Euskararen alorrean ere; Bai Euskarari akordioa, Euskararen Biziberritze Plana eta Pil-pileanekin hitzarmena sinatu zituen besteak.

Udaletxeko alkate lanarekin batera, Sologoen zentral elektrikoko lehendakariorde, Bic Berrilan enpresa ekimeneko kide eta Debegesako lehendakari ere izan zen. Alkate izan aurretik herriko hainbat elkarte eta taldetan ere hartu zuen parte. Besteak beste; Ikastolaren sorrerako batzordeko kide, Zaharren Egoitzako borondatezko kudeatzaile eta Sorluzeko F.T.ko lehendakari ere izan zen.

Alkatetzan egindako urteez balorazio ezberdinak egin balitezke ere, inork gutxi ukatzen du Albertok alkatetzan egin dituen urteak emankorrak izan direla eta orokorrean errespetuzko jarrera erakutsi zuela beti. Eta ez dagutxi horraittio!

Nere lagun Albertori

Orain urte batzuk batera ontziratu ginen bide luze bat elkarrekin egiteko, ez gindoazen bakarrik, talde eder bat genuen. Bagenekien zein zen gure patua eta horri ekin genion ilusio handiz. Une oro izan ginen jakitun geure gain hartzen ari ginen arriskuez baina ez genuen aurrera jarraitzeko zalantzarik izan.

Zuk gidatzen zenuen gure ontzia eta sendotasun handiz egiten zenuen. Hainbestekoz ezen, zure ondoan seguru aurkitzen bait ginen. Laster hasi ziren fruituak ikusten, ontzia azkar eta norabide onean zijoan. Eredugarria zinen zure aldamenaren zeuden guztientzako, beti helburu berriekin eta ilusio izugarriarekin, errealtate bihurtu artean lan egiten zenuen. Gaur ez zaude fisikoki gure artean, baina untzia martxan utzi duzu eta tripulazioa prestatua, batera hasi genuen hura amaitu ahal izateko, gure herria hobetu eta horrekin sorluzetar guztien bizimodua hobea egiteko alegia.

Eskerrik asko eman diguzun guztia-gatik eta beti arte,

O. Gabilondo EAJko zinegotzia



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Halebarren,10
Telefona 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefona 943 75 13 99
SORLUZE

ARRANO
tabernia

Giro euskalduna eta sanua

ETORRI ETA GOZATU



EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera

Telefona 75 24 09

30 urtian eruan ditu hemengo diru kontuak. Alkate izan aurretik, erresidentzia egiteko borrokan eta gero bere mantenimenduan lagundu dosku beti. Eskertu ezinezko lana egin dau.

Goyi Bicente
Zaharren Egoitzako arduraduna

Soraluzen arrastorik haundixena laga daben alkatea izan dala uste dot. Nik asko ikasi dot bere onduan.

Jose Luis Badiola
EAKo zinegotzia

Berekoa zan baina entzuten zekixana. Herrixa berritzeko dirulaguntzak kudeatzen ahalegin haundixa egin zeban.

Jose Luis Arizaga
SAHeko zinegotzia

Bere giza kalitatia eta Soraluze hobetzeko etengabeko lana azpimarrituko nituzke. Listoia oso goixan laga dau. Askotako botako dot faltan.

Soledad del Bosque
PSEeko zinegotzia

Aberto lagun eta lankide izan da, nahiz eta ezberdintasun politiko haundixak izan. Bere bulegoko atiak beti egon ziran zabalik.

Javier Nuñez
PPko zinegotzia

Legegintzaldia argazkitan



San Andresko frontoia inauguratzen



Bai Euskarari hitzarmena sinatzen



Kzguna zabaldu zenekoa



Ezoziko Baseliza berritu zenekoa



Atxuriko parke berriztuan



Txirrindularitzako sariak banatzen



Bidegorri berria zabaldu zenekoa



Izartu I-eko azalpenak ematen

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE



Jose Antonio S.L.
igeltzeritza

Gabolatz, 19 - Telefonoa 943 75 11 14 - 943 75 24 49
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)

Chillidalekutik Soraluzeko elizara



Jose Ignazio Ansorena "Piter" ekin berab egin dugu bariku honetan elizan eskeiniko duten emanaldiaren inguruan.

Noiz eta zela sortu zenduten emanaldi hau?

Joxerra aspalditik ezagutzen dut, telebistan lan asko egin izan dugu elkarrekin. Berak popa eta bluesa landu ditu gehiago eta nik doinu tradizionalak. Elkarrekin zeozer egin behar ge-

nuela eta astean behin elkartzten hasi ginen. Emanaldian, artzairen aho txistuak eta doinu originalak ere badira.

Zela txertatu dituzue poesia, bertsoa eta dantza ?

Entsaio baten ari ginela, Kirmen Uriberen poema bat erakutsi nion, hunkitu ninduen eta berari ere sentimendu berdina eragin zion. Egaña ikasle izan nuen eta harreman handia daukagu. Felix Iñurrategi hil zenean hutsune handia utzi zuen euskal gizartean eta gai hori Andonirekin lantzea erabaki genuen Soraluzera Unai Iturriaga etorriko da baina. Jon Maia dantzaria ere ezagun nuen eta txistuarekin dantza berez lotuta doanez...

Diskua be grabatu dozue?

Ikuskizuna eskeintzen genuen hirugarren aldiari, emanaldia Musika Hamabostaldiaren barruan eskeintzeko gonbitea jaso genuen, Txillidalekun. Eta pentsatu genuen, zergatik ez disko bat grabatu? Gero Gaztelupeko Hotsak diskoa kaleratzeko prest agertu zen.

Izan zara lehenago Soraluzen?

Bai. Kixmi, Mixki eta Kaxkamelon pailazoekin behin baino gehiagotan izan ginen Soraluzen. Gogoratzen dut eliza ondoko zine batean eskeini gurela emanaldia. Oso oroitzapen pozgarria gordetzen dut Soraluzez.

Gaztelupeko Hotsak gustora Durangon


Gaztelupeko Hotsak disketxetik adierazi digutenez, gustora daude aurten Durangon izan duten harrerarekin. Aurten gainera bi salmenta toki ezberdin izan dituzte; bata Gaztelupeko Hotsak zigilupeko musikarentzat eta bestea Paper Hotsak sailleko multimedia eta idatzizkoentzat. Karidadeko Benta, Kokein eta Bide Ertzeanen diskoak izan omen dira gehien saldu direnak.



Jostailuak aukeratzen trebatzeko hitzaldia

Datorren martitzenean, abenduaren 14an, "Nola aukeratu jostailu egokia?" gaitzat hartuta, hitzaldia izango da Kiroldegiko erakusketa aretoan arratsaldeko 19etatik aurrera.

Fernando Oregiren argazkia saritu dute




Joan astean banatu zituen ONCE etxeak "Ezintasuna gailendu. Mundu berri bat." gaitzat hartuta antolatutako argazki lehiaketa sariak. Europa mailako lehiaketa honetan, 300 argazkiren artean saritu dute (2. saria) Fernando Oregi soraluzetar argazkilaria- ren arginalazki bat, 750 euroko sariarekin.

Argazki erakusketa

Kontrargi argazki taldeak antolatuta, aurtengo argazki rallyan saritutako argazkiak izango dira erakusgai Kiroldegiko Erakusketa Aretoan. Erakusketak abenduaren 13an zabalduko ditu ateak 31ra bitartean.

ELIZPE




h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

Bolia
taberna

Etxaburueta
Tel.: 943 75 11 04
20590 Soraluze



Elena Urrestarazu Kanadan

Elena Urrestarazu soroluzetarrak Epilepsia sendatzea erraztuko duen aurkiuntza garrantzitsu baten berri eman du. Beka bat lortu berri du eta Kanadan bizi da.

Elena Urrestarazuk 32 urte ditu, medikuntza ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean eta neurologian espezializatu ere bai Nafarroako Klinika Unibertsitarioan. Orain hiru urte amaitu zituen ikasketok eta ordutik tesi doktora egiten jardun du. Azaroaren 9an berak egindako aurkikuntza baten berri eman zuen Nafarroako Unibertsitateak eta azkenaldian komunikabide askotan ikusi dugu bere izena aurkikuntza horri lotuta. Guztira 14 urte eman ditu Barañainen (Nafarroa) bizi izaten baina orain Montrealen bizi da, Kanadan ikasten jarraitzeko beka lortu du eta.

Azkenaldian komunikabide askotan ikusi zaitugu. Zein izan da egin duzun aurkikuntza?

Analisi matematiko bat aplikatu dut elektroentzefalograma aztertzeko. Teknika honek OIA (Osagai Independenteen Analisia) izena dauka eta telekomunikazio alorrean aplikatu izan da, jendeak batera berba egiten duen elkarrizketa batean ahotsak banantzeko adibidez.

Ahotsak bereizteko gauza bazen, nahasturik dauden burmuineko eremu ezberdinetako jardunak (arruntak eta epileptikoak) bereizteko ere baliagarri izan zitekeela pentsatu genuen. Lehenago erabili izan diren beste teknika batzuk baino hobeto egiten duela erakutsi dugu.

Ze eragin dauka aurkikuntza horrek epilepsia gaixotasunaren ezagutzan?

Epilepsia gaixoen %70 tratamendu medikoaren bitartez kontrolatzen dira eta ez da ezer gehiago planteatzen. Gai nontzeko %30etik %40 inguruko portzentaia ebakuntza bidez sendatu edo hobetu daiteke baina hori egin ahal izateko kendu nahi dena oso ongi lekututa izan behar da eta horretan laguntzen du egin dugun aurkikuntzak.

Zure tesiaren berri eman duzunik asko aldatu zaizu bizitza?

Ez zait bizitza asko aldatu baina jende askok erakutsi du interesa gaiarekiko. Lehen emaitzak nazioarteko neurologia aldizkarietan kaleratu ditugu eta ordutik aztertzaile eta neurologo askok erakutsi dute gaiarekiko interesa. Orain, prentsan iragarri denean, gaixo askok deitzen edo idazten dute euren kasuan erabilgarri izan daitekeen jakiteko. Posible da



Elena Urrestarazu Kanadako Montreal hiriko 30. solairuko bere etxebizitzan.

Montrealera heldu berri naiz eta dagoeneko zero azpitik 10-15 gardutan gaude.

denbora gutxi barru kasu errealetan ezartzeko modua izatea eta onura nagusia jasoko dutenak medikazio bidez kontrolatzen ez direnak izango dira, gaixotasuna gune bakarrean dutenak, kokagunea aurkituz gero, erauzi eta sendatu daitezkeenak.

Kanadan lan egiteko beka bat lortu duzu. Zela lortu duzu beka?

Orain Kanadara etorri naiz, munduko epilepsia zentru garrantzitsuenetako batera, Eusko Jaurlaritzak emandako doktorego osteko beka batekin. Azterketa proiektu bat aurkeztu nien, elkarrizketa bat egin zidaten Bilbon eta azkenean beka eman zidaten. Amets baten modukoa da. Hemen, aurkitu duguna buruhezur barneko erregistroetan ikusten denarekin alderatu ahal izango dut, behinbetiko aurkitu duguna erreala dela egiaztatzeko.

Espanian medikuntzako azterketak egiteko laguntzak zelakoak

dira?

Gaur egun oso zaila da aztertzea dedikatzea, ze ia denok bekarioak gara eta eragozpen handiak ditugu (mediku izanda baino askoz gutxiago irabazten da, ez da kotizatzen eta ez daukazu gizarte segurantzarik., etabr.) baina gaur egun ia modu bakarra da.

Zelakoa izan da lehen harremana Kanadarekin?

Montrealera heldu berri naiz eta dagoeneko zero azpitik 10-15 gradutan gaude eta urtarrilean hau udaberria irudituko zaidala esaten didate. Jendea oso atsegina da eta asko laguntzen dute eta ia denak atzerritarrek direnez, jende ezberdin asko ezagutzen da eta interesgarria da. Joan zen egun baten laneko lagun batzuekin afaldu nuen eta geunden; frantses bat, txinatar bat, brasildar bat, amerikar bat, italiar bat eta ni, guztien artean soroluzetar bat.

Etorkizunerako ze asmo duzu?

Urtebete edo bi urte barru Soraluze inguruan lana aurkitzea espero dut, ze bestela zaila da asteburuetan familia ikustera joan, kuadrilarekin atera edo domeketan Erreala ikustera joatea. Dagoeneko faltan botatzen ditudan gauzak dira. Eskerrak Internet existitzen dela.

Eibar futbol taldeko sendagileak



Oier Oregi eta Txema Peñalba soraluzetarrak Ipuruan eta erdian aurtengo plantila.

Oier Oregi orain lau urte hasi zen fioterapia moduan Eibar taldean eta Txema Peñalbak dagoeneko 18 urte daramatza mediku lanetan. Eibar taldeaspaldiko denboraldirik onena egiten ari da eta Oierrekin izan gara.

Zelako lana da fisioterapia lana Eibarren?

Hasi nintzianan dana zan berrixa. Kontsultako lana lasaixaua da eta futbolekuan exigentzia haundixagua dago. Ahal dan bizkorren sendatu bihar izaten da eta beste era baten lan egin bihar izaten da.

Ze arrazoi dago Eibar hain goixan egoteko?

Jokalarixak gaztiak dira, denboraldixa ondo hasi zan eta batez be talde moduan danok familixa bat gara eta hori oso garrantzitsua da. Hori igartzen da zelaixan. Eta gero azertua. Joseba Llorente oso ondo dago...

Zer aldatzen da taldia ondo doianian?

Taldia goixan daganian dana doa ondo. Arazo gutxiago egoten dira, jentia hobeto egoten da, errekupeziñuak bizkorrago egiten dira... Lasaitasun haundixa sentitzen da, ez da arazorik izaten jokalarixen artian... dirua sartzen da eta egonkortasuna nabaritzen da. Akordatzen naiz, oin hiru urte ixu bajatzeko egon ginala. Oso gogorra izan zan.

Jokalari danak profesionalak dira?

Esan leike baietz. Ikasle batzuk badare baina gehixenak horretatik bizi dira. Juan zan urtian oindio bazeuan jokalariren bat lan egitten zebana baina oin danak futboletik bizi dira.

Hik imaginatzen dok Eibar lehenengo mailan?

Nik oindio astelehenetan periodikua hartzen dotenian behera begiratzen dot eta begiratu ia zenbat puntutara dagan jeitsiera. Oin pasatzen dana da, urtarrilian fitxagiak eta ein leizkela eta hor gauza asko gertatzen dira. Guk taldia mantendu bihar dogu.

Eta lehenengora heldu ezkeru?

Nik uste dot oindio planteau bez dogula ein lehenengo mailako aukera hori.

20 Urtez azpiko Euskal Selektziñuarekin be ibili haiz.

Bai. Oin hilabete sortu zan aukeria Frantziara juateko eta juatia erabaki neban. Lehenengo aldixa zan Euskadik ofizialki europa mailan jolasten zebana eta egon nahi neban. Esperientzia oso ona izan da. Orain bigarren fase batera goiaz eta orain irabaztia oso garrantzitsua litzake euskadintzat, ofizialtasunera heltzeko... Ta horren ilusiñuakin...

Frantzian jokatu genduan partiduan, karteletan Espainiako ordezkari moduan jartzen gintuzten eta errotuladorak hartu eta Euskadi ipini genduan.

EMAITZAK

Futbola

-15ean-

Amaikak bat **1 - SORALUZE 0 (Erre.)**
(14. 16tik 10 punturekin)

SORALUZE 0 - Orioko 6 (Juben.)

(Azkenak 0 punturekin)

SORALUZE 3 - Urki 3 (Kadet.)

(Azkenak 4 punturekin)

Esku pilota

Haritz Laskurain

Entrenatzen hasita dago baina oraindik ez dago jokatzeko moduan.

Iñaki Jauregi

Interclub Txapelketan 3. gelditu da Zabalarekin batera.

Atxotegi

Azpeitiren aurka 22-06 galdu zuten Elgoibarren.

AGENDA

Futbola,

Soraluze - Idiazabal (Erreg.)

Amaikak bat - Soraluze (Juben.)

Antzuola - Soraluze (Kadet.)

Esku pilota,

Iñaki Jauregi

Abenduaren 12an

11:00etan Getxon

Getxoko Txapelketako Semifinala jokatu du Gonzalezekin batera.

Atxotegi

Abenduaren 10ean

19:30etan Azpeitin

Bueltako partidua jokatu behar dute Azpeitiren kontra. Finalerako txartela dago jokoan.

Mendi irteera,

Azaroaren 19an

Izazpe mendira (967 m).

Mandubia

AR. MENDIA JATETXEA



Ezoz Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

Ion Mendizabal

*“Euskara bigarren mailako interesa da politiko
sasi-euskaldunentzat!”*

Oporrak izanda ere ezin laga Pil-pileaneko irakurleak Kale Kantaleaneko galdera eta erantzunik gabe. Azken orduan harra-
patu dut “Asalia”, goizeko ordubietan Arranoko ixkinan trago bat hartzen. Eta hor doaz euskaltzale fin honen galdera
erantzunak.

Izena edadia eta lanbidia?

Ion Mendizabal 23 urte eta sukalde
montatzailea.

Plazentziako txoko bat?

Leziako haitzak.

Eskalatzerako edo egotera?

Egotera, bizi garan lurraraz gozatu
eta buruari astinaldi batzuk emotera.

Oporretarako toki bat?

Oinarte ezagutu ez doten kultura
daukan herri batera, desertura adibi-
dez.

Zelakua da Ion?

Euskaltzalia eta bizi naizen lurrari
kriston loturia daukan pertsona.

Gaur euskararen eguna, zela ikusten dozu euskerian egoeria?

Beltza. Ezagutza eta erabileran ar-
tian kriston aldia dago, askotan ez gara
konturatzen bertako hizkuntza erabil-
tzen ez dabenak bertakua ez dan norta-
sun bat inposatzen doskula nahita edo
nahi barik.

*Oinarte ezagutu ez doten
kultura bat ezagutzera jua
nahi neuke, desertura
adibidez!*

Inposaketak aipatuz nortzutaz diharduzu?

“Hemen euskaraz ez dakienak be-
rak jakingo du zergaitik ez dakien, bai-
na hemen euskaraz jakin eta egiten ez
duenak ere ez digu euskaraz egiten uz-
ten” Bitoriano Gandiagaren esaldi hau
gogora ekartzen doskun jentiaz .

Euskararen egoera beltza ikus- ten duzu, nola ikusten duzu euskal- gintza?


Lanian dagon jende gitxixak kriston
borondatia daka, oso larrixa iruditzen

Bertso Begiz

*Euskararekin konpromezua,
herritarrerri igorri mezua,
egoera ez da ona baina
hobetu daiteke alajaina!
egurra landuz,
herri honen alde borrokatuz,
zoaz ametsak egi bihurtuz.*

Neko

(doinua: Juana Bixenta ..)



Ion Mendizabal

jata denon hizkuntz eskubideen alde
lanian daona alde batera ustia. Euska-
ra danon altxorra da.

Epe motzerako soluziorik ikus- ten al dozu?

Garbi esanda ez. Azken finian eus-
kara bigarren mailako interesa da poli-
tiko sasi-euskaldunentzat. Hor ditugu
beste adibirenen artean osasungintzako
oposaketak.

Lanean arotza, afizioz taila. Ez al da denbora larregi egur artean?

Ahaztu jatzu Euskal Herrixan kris-
ton egurra emoten dala, gehixen bat

horrek aspertzen nau. Egurrari egurra
!!

Ze aspirazino daukazu bizi- tzan?

Nere herrixan aske bizi den esku-
bide osodun pertsona izatea.

Bukatze txiste bat edo herri- xandako mezuren bat?

Herritarrei begiak zabaltzeko eta
bizi dogun gatazka konpontzeko aurre-
ra pausuak emoteko esango notseke,
borondate zintzo gehixao eta ez hau-
teskundietara mugatu eta betetzen ez
diran promesak egin.

EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua



**Eguneroko
menua eta
pintxoak**

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze




**HNOS. BENITO
ANAIK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



Ugaraxo

Aldizkari honek udalaren dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko





Dantza barre eta jan



Hermen gaude gu, 3. mailako ikasleok, kukurutxoak noiz beteko zain.

Gaztañerre

Plazentzian



Aurten gaztainerre egunean Gaztañerreri buruzko marrazki lehiaketa antolatu genuen. Eskolako marrazki guztien artean hemen ikusten duzuen izan zen aukeratua eta gaztainerre arratsaldean denok margotu genuen eta beste marrazkiez, pasiloak apaindu genituen. Ondoren frontoira joan ginen, han dantza desberdinak egin genituen eta eguna ondo bukatzeko azkenean gaztainak banatu zizkiguten eta guk JAN, JAN eta JAN.

Birziklatzen...

GURE GELAN SOBERAN GELDITZEN DIREN PAPERAK BESTE ZABORRETATIK BEREIZTU EGITEN DITUGU.

PAPER HAUEK BOTATZEKO KAXA HAU PRESTATZEN DIARDUGU.

ZUEK ETXEAN BEREIZTEN DITUZUE?

GUK EGUNERO KAXARA BOTATZEN DITUGU.

KAXA BETE ONDOREN HERRIAN JARRITA DAGOEN KONTENEDORE HONETARA EKARTZEN DITUGU, PAPER HORIEK BERRIZ ERE, ERREZIKLA DITZATEN.



4 URTE DAUZKAGU

ZUEK ERE GAUZA BERA EGITEN DUZUE?

EZ BADA HORRELA, BERDINA EGITERA GONBIDATZEN ZAITUZTEGU.

BADAKIZUE NORA BOTA EZTA?

HAU EGITEN BADUZUE, DENON ONERAKO IZANGO DA.



TXIKI-INKESTA

Zein jokutara jokatzen dozue jolasordutan?

MARKEL BERRUTIA 10 URTE 5.MAILA

Alturitasera jolasten dogu jolasordutan eta kalian Polis eta kakosera edo tiburon jokura edo bestela futbolian. Etxian konsoliakin ibiltzen naiz.

**MAIALEN BILA 8URTE 3.MAILA A**

Eskolan harrapaketara jolasten dogu, baina gero kalera irtezen garanian eskutaketara. Etxian pinponera jokatzen dot.

**NEREA MARTIN 8.MAILA B**

Eskola orduetan sorginetara jolasten dogu edo bestela gometara eta kalian andereñotara. Etxian naguanian muñeekin jolasten dot.

**IMANOL HERAS 12URTE 6.MAILA B**

Eskolan garenian jolasordutan espatetara jolasten dogu eta hau da geixen gustatzen jatan jokua. Kalian garenian futbolian jokatzen dogu gehixen.

**ANDER GOMEZ 9 URTE 4.MAILA B**

Eskolan futbolera beti eta kalian gehixenetan baita edo bestela polizia eta lapurretara. Etxian konsoliakin ibiltzen naiz, baina gustokuen marraztia eta bizikletan ibiltzia dot.

**LARA FIGUERA 11URTE 5.MAILA**

Jolasordutan harrapaketetan jolasten dogu gehixenbat eta asko gustatzen jata. Kalian lagunekin ezkutaketan jolasten dogu eta gero etxian ordenadoriakin.



JOLASEAN

ASMAKIZUNA

NI HASTEN NAIZENEAN KANTARI
ZUHAITZ GUZTIAK DANTZARI.
NI HASTEN NAIZENEAN TXISTUKA
ATE ETA LEIHOAK ORRUKA
EZ DAKIZU POLITA NAIZEN
ALA ITSUSI,
EZIN BAINAUZU IKUSI.
ZER NAIZ?

OLERKIA

ESNA ZAITEZ, ENEKO
ESNATU ZERTARAKO?
IKASTOLARA JOATEKO
IKASTOLARA ZERTARAKO?
ABESTIAK IKASTEKO
ABESTIAK ZERTARAKO?
AMATXORI ABESTEKO.

Elkarrizketa bi musikari gazteri!

Santa Zezilia eguna pasatu berri dela eta, soinua eta gitarra jotzen ikasteko ahalegintan diharduten Jone eta Iñigorekin izan gara.



- **Noiz Hasi zinen musika ikasten?** Jun zan urtiaz hasi nitzan

- **Eta zein instrumentu jotzen dozu?** Beti gustau izan jata musikia eta gitarrria ikastin hasi nitzan etxian daneri gustatzen jakuelako.

- **Zure etxian batenbatek jotzen dau beste instrumenturik?** Ez, ni naiz bakarra.

- **Ze musika mota gustatzen jatzu gehixen?** Rocka gustatzen jata gehixen.

- **Zein talde geixen?** La oreja de Bangog eta Melendi.

- **Kantu bat?** Estopan diskoko 3. Abestixa.

- **Jendaurrean jotia gustatzen jatzu?** Bai, baina taldiakin, behin bakarrik jo dot eta lotsia pasau neban.

- **Nagusitan musikari izatia gustauko litzazuke?** Ez, hau afiziñua da neretako.

- **Noiz hasi zinan musika ikasten?** Oindala bi urte hasi nitzan. Asko gustau izan jata beti musika eta ikasten astia interesgarrixa iruditxu jatan.

- **Eta zein instrumentu jotzen dozu?** Nik trikitixa jotzen dot, bere soinua asko gustatzen jata eta.


- **Zure etxian batenbatek jotzen dau beste instrumenturik?** Ez ni naiz jotzen daben bakarra.

- **Ze musika mota gustatzen jatzu gehixen?** Ez daukat musika mota bakar bat, danetik gustatzen jata.

- **Eta zein musikari?** Gehixen Melendi.

- **Jendaurrian jotia atsegin dozu?** Bai, jo izan dot eta goguekin nao geixautan jotzeko eta laster gainera pasakaillian jotzen hasiko naiz eta oso animauta nao.



- **Nagusitan musikatik bizitzia gustauko litzazuke?** Bai, ez da ideia txarra.



Baietz erantzun zenuen Alkatetzarako hautagai izatea proposatu genizunean, zure zintzotasuna azalduz. Herriaren alde lan egitea, gogoko zenuela esan zenuen. Ilusioz eta gogo handiz hasi zinen lanean, eta horrela jarraitu duzu azken bost/sei urte hauetan, egin duzun lan bikaina bizitzak dituen legeek eten duten arte. Lan hori zeuk burutu ahal izatea gustatuko zitzaigukeen.

Mila esker zure ekarpenagatik.
Agur Alberto. Ez zaitugu ahaztuko.

Soraluzeko Uri Buru Batzarra



Gabonetan euskal musika opari



KARIDADEKO BENTA
"Amore amore"
Prezioa: 10 €
8 € bazkideak



SENPERENA ANSORENA
"Chillida Lebakik"
Prezioa: 10 €
8 € bazkideak




BIDE ERTZEAN
"Esan bare"
Prezioa: 10 €
8 € bazkideak



MIKEL URDANGARIN
"Lagun artean" DVDa
Prezioa: 10 €
8 € bazkideak



TXUMA MURUGARREN
"Nire anaiaren kotxeke argiak"
Prezioa: 10 €
8 € bazkideak



LIZARDI
"Parisko Txolarrea"
Prezioa: 10 €
8 € bazkideak

Beharrezko opariak eskuratzeko bidea:
1- 943 75 13 04 telefonora deitu (PI-pilaan)
2- pitpilean@euskalnet.net helbidera mezu bidaltu
3- Iratxo garoierdian
4- Asteburutan lekuan jarriko diren postuetan
Eskaintza hau Abenduaren 1etik Urtarrilaren 31era izango da zabalik



abenduaren 10
ostirala
20:00etan elizan



ANSORENA
SENPERENA

Chillida Teknik

antolatzailea
Soraluzeko udala

BERTSO SAIOA DOAN



Andoni Egaña



Jon Barberena



Jokin Sorozabal



Oihana Bartra

abenduaren 17
ostirala

**Soraluzeko
Abadetxeko
kapilan**

22:30etan

antolatzailea
Ibilixan Ibilixan
bertso eskola

babeskea
Soraluzeko Udala

gai-jartzailea
Egoitz Unamuno



EZOZIA

JATETXEA

Zatoz eta gozatu
gure jakiak!



EZOZI jatetxean bazkari eta afaririk
ederrenak preziorik onenean.

Eguneroko menua
eta aukera zabala kartara.

Ezozia Auzoa Tel: 943 751001 SORALUZE